

GRAL TUTORETZAK-PROPOSAMENA

*Iturria: Grala egiteko, tutorizatzeko eta ebaluatzeko liburua.
Karmele Perez, Pilar Ruiz de Gauna, Estibaliz Fernández de Larrea, Begoña Bilbao, Begoña Molero*

I-Tutoretza: Kontaktu saioa (urria).

Elkar ezagutzea eta erantzukidetzeta da asmoa. Saio bakoitzaren aurretik, saioan zehar eta ondoren egiteko jarraibideak daudenez, saio honetan horrela zehazten da.

Aurretik:

- Gida eta araudia irakurri (galderak planteatu).
- Egin nahi duenari buruzko bi orrialde idatzi.
- Landuko den gaiarekin lotutako lau erreferentzia bibliografiko aukeratu.
- Idatzitako bi orrialdeak zuzendariari bidali talde-tutoretza baino lau egun lehenago.

Saioan zehar:

- Ikasleak galderak eta idatzitako bi orrialdeak aurkeztuko ditu.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a egingo da.
- Irakasleak tresna hauek aurkeztuko ditu: autoebaluazioa, koebaluazioa, zuzendariaren errubrika eta epaimahaiaren errubrika.
- Hurrengo tutoretza saioen egutegia ezarriko da.

Ondoren, zuzendariaren errubrikaren gaitasunei jarraiki:

- Gaiaren gako-deskriptoreak identifikatu.
- Bilaketa bibliografikoa egin eta, gutxienez, zazpi erreferentzia aukeratu.
- Galdera eta/edo xede egokiak planteatu eta helburuak garatzeko beharrezkoak diren zereginak adierazi.
- Hori guztia lau orrialdetako dokumentu batean idatzi, GRALaren txantiloari jarraiki, eta idazketa berraztertu autokontrol zerrenda baliatuz.

II-Tutoretza: Lehen eduki-saioa (azaroa).

GRALari edukia emateko hasiera-saioa. Asmoa gaia eta bere helburuak mugatzea da.

Aurretik:

- Ikasleak dokumentua bidaliko du erabakitako zereginekin saioa baino lau egun lehenago.
- Zuzendariak dokumentua landu eta feedback-a prestatuko du.

Saioan zehar:

- Bilera GRALaren gaian, tipologian, galderetan eta/edo helburuetan zentratuko da.
- Ikasleak taldeari aurkeztuko dizkio egindako zereginak.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a (koebaluazioa eta heteroebaluazioa).
- Zuzendaria ikasleak erakutsitako ikaskuntzak adierazten joango da errubrikan.

Ondoren, zuzendariaren errubrikaren gaitasunei jarraiki:

- Lanaren egitura zehaztu eta atal bakoitzari edukia eman (helburuak, metodologia, baliabideak, interpretazioa, etab.) GRAL motei jarraiki, metodologian zentratuz.
- Lanaren faseak deskribatu eta justifikatu.
- Kronograma garatu beharren arabera.
- Txantiloari jarraiki sei orriko dokumentu bat egin eta idazketa berraztertu autokontrol zerrenda erabiliz.

III-Tutoretza: Bigarren eduki-saioa (urtarrila).

Saio honen asmoa GRALaren diseinua eta planifikazioa egitea da. Egitura orokorra (koherentzia) eman nahi da.

Aurretik:

- Ikasleak aurkezpena bidaliko du GRALaren lehen diseinuarekin, eta bere irudikapena sei orritan, saioa baino lau egun lehenago.
- Zuzendariak dokumentua landu eta feedback-a prestatuko du.

Saioan zehar:

- Bilera, lanaren egitura globala aurkezten eta GRALa mugatzen zentratuko da helburuekin bat etorriz.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a (koebaluazioa eta heteroebaluazioa).
- Ikasleak bere aurkezpena egingo dio taldeari.
- Zuzendaria ikasleak erakutsitako ikaskuntzak adierazten joango da errubrikan.
- Zuzendariak metodologiaren garrantzia azpimarratuko du.

Ondoren, zuzendariaren errubrikaren gaitasunei jarraiki:

- Zuzenketak egingo dira ikasleen eta zuzendariaren feedback-aren arabera.
- Metodologia eta landa-lana zehaztuko dira.
- Ikaslea banakako tutoretzetara joan ahal izango da zuzendariak ezarritako ordutegian.
- Hamar orrialdeko dokumentua idatziko du, txantiloari jarraituz, eta idazketa berraztertuko du autokontrol zerrenda baliatuz.

IV- Tutoretza: Hirugarren eduki-saioa (martxoa).

GRALaren garapen saio honetan, metodologia eta eremu-ikerketak azpimarratuko dira.

Aurretik:

- Ikasleak dokumentua bidaliko du saioa baino sei egun lehenago.
- Zuzendariak dokumentua landu eta feedback-a prestatuko du.

Saioan zehar:

- Bilera, metodologian eta eremu-ikerketan zentratuko da.
- Ikasleak bere lana aurkeztuko dio taldeari.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a (koebaluazioa eta heteroebaluazioa).
- Zuzendaria ikasleak lortutako ikaskuntzak adieraziz joango da errubrikan.

Ondoren:

- Zuzendariaren errubrikaren gaitasunei jarraiki:
- Zuzenketak egingo dira ikasleen eta zuzendariaren feedback-aren arabera.
- Datuen interpretazioa aztertuko da.
- Hau guztia hogeitazko dokumentu idatzi batean aurkeztuko da txantiloari jarraituta eta idazketa berraztertuta autokontrol zerrenda baliatuz.

V-Tutoretza: Laugarren eduki-saioa (apirila).

Balorazio eta interpretazio saioa da, eta bertan GRALaren zirriborroa landuko da.

Aurretik:

- Ikasleak dokumentua bidaliko du saioa baino sei egun lehenago.
- Zuzendariak dokumentua landu eta feedback-a prestatuko du.

Saioan zehar:

- Bilera, analisis, interpretazioan eta ondorioetan zentratuko da.
- Ikasleak bere lana aurkeztuko dio taldeari.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a (koebaluazioa eta heteroebaluazioa).
- Zuzendaria ikasleak lortutako ikaskuntzak adieraziz joango da errubrikan.

Ondoren, zuzendariaren errubrikaren gaitasunei jarraiki:

- Zuzenketak egingo dira ikasleen eta zuzendariaren feedback-aren arabera.
- Behin betiko GRALa egingo da txantiloia jarraituz eta idazketa berraztertu egingo da autokontrol zerrenda baliatuz.

VI- Tutoretza: Itxiera saioa (maiatza).

Defentsa eta berarekin lotutako tramite administratibo eta formalak landuko dira.

Aurretik:

- Ikasleak behin betiko GRALa bidaliko du saioa baino zortzi egun lehenago.
- Zuzendariak dokumentua landu eta feedback-a prestatuko du.

Saioan zehar:

- Bilera, azken feedback-a ematen eta defentsa prestatzen zentratuko da.
- Ikasleak defentsa egingo du taldearen aurrean.
- Ikasleen eta zuzendariaren feedback-a (koebaluazioa eta heteroebaluazioa).

Ondoren:

- Beharrezko zuzenketak egingo dira.
- Ikasleak bere GRALa igoko du ADDI plataformara.